

M. Ugalde: Euskal kazetari baten bizitza trinkoa

X. Arzelus

Hemen, 1990-01-05.

Atzoko eta gaurko euskal kazetarien arteko zubia kontsideraturik dago Martin Ugalde. Oraintxe bertan, 69 urte dituen andoaindarra euskal egunkariaren projektua suspertzeko eratu en pertsonaia taldeko partaideetariko bat da. Politikoki lehenbizi PNVn eta orain EAko zerrendetan badago ere Garaikoetxearen gobernuarekin Euskararen Suztapenerako zuzendari izan zen Martin ugaldereen benetako militantzia euskararena izan da beti. *"Ni idazlea naiz, ez nago kargu politikoetarako egina. Politikari izan naizenean ere, erresistentziaren politikaria izan naiz"*, esan digu Ugaldek. Izan ere, argi dago Martin idazle eta kazetari bikaina dela. Igaz, "Argia" aldizkariak Euskal Kazetaritzaren saria eman zion eta, igaz ere, "Euskadi" saria irabazi du.

Martin Ugalde Hondarribian bizi da, Bidasoa hibaitik hamar metrotara duen etxebizitzan. Balkoi zabaletik Irungo San Marzial menditik hasi eta itsas horizonteraino Ipar Euskal Herriko panoramika ederra ikus daiteke, Hendaiako herria eta hondartza nagusi direlarik. Martinen etxearen kokaguneak zehazki isladatzen du idazle andoaindarraren bizitzaren ardatzik nagusienak, izpirituz betidanik Euskal Herrian egon bada ere urte luzez mugatik beste alderantz bizi behar izan bait du, lehenbizi Venezuelan eta, hiru urtez, Ipar Euskal Herrian.

Martin Ugaldereen bizitzak liburu mardulik merezi badu ere, geure elkarrikusaren helburua Martin izan den kazetariaren berri ezagutzea izan da. *"Andoaingo gure etxe aurrean, esan digu, 'Acción Católica' ren liburutegia zegoen eta hara joaten nintzen Salgari-ren nobelak irakurtzera... Ni neuk ez nituen abentura haiek irudimenez sortutakoak bezala ikusten, idazleak bizi izandako erreportaiak izango bailiran baizik".* Irudimena... Errealitatea... Ez da harritzekoa Martin Ugaldek landu izan dituen jeneroak ipuingintza eta kazetaritzan, erreportaigintza izan diren, erreportaiak bait dira kazetaritzan lanik "libreenak". Halere, kazetaritzan Martinek izan zituen hastapenak askoz ere herstuagoak izan ziren. *"1945 urtean, gutxi gora behera, 'El Diario Vasco' k Andoainen zuen korrespontsalak lana utzi behar izan zuen eta ni nau hasi nintzen kazetari lanetan. Nire lehenetariko berri batean, herriko 'Etxebarrieta' futbol zelaia aipatzerakoan 'Etxebarrieta' 'tx'ekin idatzi nuen, 'ch' jarri beharrean... Egunkarikoek Donostiako erredakziora deitu ninduten berehala eta, bertan, zuzendariak sekulako bronka bota zidan, beste antzekoren bat gertatuko balitz berehala prozesatzeko mehatxu egiten zidala... Eta handik gutxira beste antzekoren bat egin nuenez, nire korrespontsal lana galdu nuen".* Handik gutxira, 1947. urtean, 25 urte zituen Martin eta bere ama jada Venezuelan bizi zen aitarekin biltzera joan ziren. *"Diktadura gogorrenetik Venezuelara hauteskunde kanpaina baten erdian heldu ginenean zeharo txunditurik geratu nintzen bertan aurkitu genuen askatasun giroa ehiegizkoa irudi bait zitzaigun"*, adierazi digu

Martinek. Berehala, 'La Esfera' egunkariko zuzendariarengana jo zuen martinek, baina Venezuelako prentsa Elkartekoa ez zenez ez zuen hasieran kazetaritzan lan egiteko aukerarik izan. *"Gainera, berehala ikusi nuen bertan egiten zen gaztelania oso berezia zela eta urte batzu behar izan nituen bertako idazkera landu eta gainditu nuen arte... Gauza xelebrea, beti tokatu izan zait hizkuntzekin burrukan aritzea: lehenbizi Venezuelan, bertako gaztelaniaren berezitasuna mamitzeko eta, Euskal Herrira etorri nintzenean euskara dominatzeko...* Etxeko balkoitik bestaldera arrantzuntzi anonimo bat Bidasoako uretan gorantz doa, ilunabarraren lehen itzalak paisaiatz nagusitzen diren artean.

Venezuelara heltzerakoan, Ugaldek "iraultza" eraman zuen Caracas-eko "Euskal Etxea"ra, bertan zebiltzan neskak eta mutilek, aktibitateak zeharo banaturik egiten zituztela ikusirik Andoaindik heldu berria zen Martinek gazteek aktibitateak elkarrekin egitea proposatu bait zuen. "Euskal Etxea"ko sektorerik kontserbadoreenak jantziak urratu zituzten. Orduan, Martinek PNVek Miarritzen zuen zuzendaritzara idatzi zuen, auziaz zerbait erabaki zezan. Azkenik, zuzendaritza ekintza mistoen alde azaldu zen eta Caracas-eko "Euskal Etxea"ko elementurik atzerakoienek baja presentatu zuten.

Oraindik kazetaritzan aritu ezin eta Martinek idazteko zuen zaletasuna "Euskal Etxea"n ziklostilen egiten zen aldizkaritxoan isuri zuen. *"Ondoren, ama, venezuelarra eta aita arabarra zuen Pakito Villanueva kazetariaren bidez, 'Elite' astekarian hasi zen lanean eta euskal kazetari gazteak sekulako helburua lortu zuen berehala; astekaria astero puntualki eta egun berean kaleratzea lortu bait zuen. Militar kolpista batzuk Rómulo Gallegos presidentea 'kendu' zutenean, aldizkariak sekulako arrakasta izan zuen, kolpistek Delgado Chalbaud koronela hil zutenean astekariak oso informazio zehatza eta bikaina eman bait zuen. "Berehala, 'El Nacional' egunkariko zuzendaria zen Miguel Otero Silva-k bere periodikura pasatzeko eskaintza ona egin zidan baina ni neuk nahiago izan dut beti astekarietan lan egitea, erreportaiak gehiago zaintzen bait dira egunkarietan baino. Beraz, ez nintzen 'El Nacional'era pasa. 'Creole' petrolio konpainia poteretsuak 'Nosotros' izena zuen aldizkari hilerokoa zuzentzea proposatu zionean, haatik, Ugaldek eskaintza onartu zuen, ekonomikoki ere oso profitagarria bait zitzaion. Eta bi hilabeteen behin egiten zen 'El Farol'era proposatu ziotenean, andoaindarra, oraingoan ere, eskaintza onartu zuen. 'El Farol'n hamabost urtez izan nintzen zuzendari, 1969. urtean Euskal Herrira itzuli nintzen arte". Aldizkariak era guztietarako erreportai eta lan sakonak argitaratzen zituen eta, 'Creole' konpainiak Estatu Batuetan kazetaritza 'akademikoki' ikasteko egin zion proposamena ere onartu zuen. "Nire emaztea eta bi seme-alabekin batera ondoren beste neska bat izango genuen eta Chicagotik gertu dagoen Evanston-en bi urtez kazetaritzako 'master'a egin nuen. Oso esperientzia ona izan zen". Baina, orduko, Martin Ugaldek irabaziak zituen Venezuelen erreportaien eta ipuinen munduan hainbat sari. "Un real de sueño sobre un andamio" ipuinaren bidez "El Nacional"en lehiaketako lehen saria lortu zuen eta, sariarekin batera, oso prestigio handia. *"Ipuinak, Caracaseko etxe garai bat eraikitzerakoan emigrante italiar baten pentsaketak kontatzen nituen, bere familiaren larrialdiak... Dirudienez, gaiak venezuelarrak hunkitu egin zituen".**

Venezuelan euskaraz idazteari eustea ez zitzaion Martin Ugalderi errazegia gertatu. "Errazagoa egiten zitzaidan gaztelaniaz idaztea euskaraz baino, geure hizkuntzan askoz

ere mugatuagoa sentitzen bait nintzen. Halere, 'Euskal Etxea'k eraturako ipuin sari bat eskuratu nuen 1959. urtean eta Agirre lehendakariak berak urrezko domina ezarri zidan. Gero 'Hiltzaileak' izeneko ipuin irabazleari beste lau edo bost erantsi nizkion eta liburu moduan argitaratu genuen. Lan militanteak ziren, gero Euskal Herrian ezkutuan zabaldu zirenak. Gerra garaian gertatutako historiak ziren, izatez, ipuinak". Bestalde, bere seme-alabei euskal problematika adierazteko, "Ama gaixo dago" idatzi zuen Martinek. Lan honetan, Unamuno eta Sabino Arana aurrez aurre jarri zituen Ugaldek, gaixorik zegoen "ama"z mintzatzen zirelarik.

1969.urtean, Martin Ugalde et bere familia osoa Euskal Herrira itzuli ziren baina, 1973. urtean poliziak Hego Euskal Herritik bota zuen Martin eta hiru urtez Iparraldean egon zen. 1977. urtean "Deia" egunkariaren hastapenetan euskal hizkuntzaren arlorako zuzendariordeko izendatu zuten. *"Euskara batuaren aldekoa nintzenez, berehala hasi zitzaizkidan protestaka. Aukeratu nituen pertsona guztiak –Mikel Atxaga eta 'Amatiño', artean– 'arerioak', 'deabruak' edo eta 'sugeak' zirela leporatzen zidaten. Halere, banuen nik 'txikia'ren, hots, Juan Ajuriagerraren laguntza eta, hala edo nola, batua nahi baino gehiago onartu behar izan zuten. Sabin Zubirik erregutu zidan gauzarik bakarra 'Euzkadi' zeta letrarekin idazteko izan zen...".* Baina, Telesforo Monzonek muga pasa zuen egunean Martinek "Deia"ren lehen orrialderako eginiko berria argitaratu ez zuela ikusi zuenean, oso mindurik geratu zen. *"Lehen orrialde hartan, Suarezzen emaztea Londrestik itzulia zela eta Dolores Ibarruri bere senarra zenaren ehorzketara etorria zela zioten, baina ez zuten Monzonen etorrera ezertarako aipatu".*

Elkarrikuskaren azken momentuetan, euskal egunkariaren arazoa aipatu diogu Martin Ugalderi. *"Partiduek gai honetaz kontzientzia haundirik ez badute ere, euskaldunon artean oso zabaldu dago euskal egunkariaren beharraren kontzientzia eta nahitaez lortu behar dugun helburua da, informabideen munduan euskarak terrenu guztia hartu behar bait du. Nire ustez, euskal agentzia bat osatu behar dugu eta euskal egunkariaren inguruan sekulako mobilizapen espektakularra osatu. Inoiz izatekotan, euskal egunkaria orain egin behar dugu. Oso optimista naizela esaten didatenean zera erantzuten dut beti: fede haundiko gizona naizela eta euskal egunkaria ez dela utopia hutsa, beharra baizik".*